

LEADER PROIEKTUEN JARDUNBIDE EGOKIAK

1.-Proiektuaren izenburua:

MIRARIAK LOURDESEN. KOMUNIKAZIO ERALDATZAILEA

2.- Jasotako laguntzaren deialdi-urtea: 2023

2023

3.- Programak zer neurritan hartu zuen laguntza:

- ☒ I. neurria: Ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako laguntza.
- ☐ II. neurria: Nekazaritzakoak ez diren eta nekazaritzako dibertsifikazioan dauden enpresetan inbertitzea.
- ☐ III. neurria: Besteren konturako kontratazioa.
- ☐ IV. neurria: Guneak gaitzea.

4. - Proiektuaren helburua:

Helburu nagusia da Beatriz Sancho Etxeberria ekintzaileak bere negozio-proiektua sortzea. Bestalde, aldarrikatu nahi da landa-inguruneak lan egiteko aukera ematen duela, are gehiago bertan biziz gero.

Jardueraren oinarria komunikazio-, sormen- eta diseinu-zerbitzu integral bat eskaintzea da gizarte-eraldaketa bultzatzen duten erakunde eta enpresei. Xedea da gizartearen eskaerak entzuten dituzten eta gizarte bidezkoago eta positiboago baten eraikuntzan funtsezko rola izan nahi duten erakundeak bilatzea. Horretarako, aintzat hartzen da gure lanbideak eragina izan dezakeela marketan, administrazioetan eta, azken batean, gure gizartean, sormena eta diseinua gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabilia.

5.- Aurreikusitako guztizko inbertsioa: 7.320,84 euro

6.- Jasotako LEADER laguntza eta beste finantzaketa-iturri batzuk:

LEADER laguntza: 8.855,00 euro.
Beste finantzaketa-iturri batzuk: 4.261,22 euro.

7.- Onuraduna:

BEATRIZ SANCHO ECHEVERRIA

- ☐ Publikoa
☒ Pribatua

8.- Erakunde parte-hartzaileak eta/edo laguntzaileak:

9.- Inbertsioaren/jardueraren kokapena:

Kuartango, Araba.

10.- Proiektuaren deskribapena (nabarmenduz alderdi berritzaileak eta/edo proiektua interesgarri eta, beraz, jardunbide egoki bihurtzen dutenak):

Proiektuaren xedea da arte-zuzendaritzako, sormeneko eta komunikazio grafikoko zerbitzuak eskaintzea.

Negozio-ildo hauek ezarri dira:

- Proiektu eraldatzaileak: nire balio-proposamenarekin bat datozen lan guztiak jasoko ditu (BERRIKUNTZA ETA GIZARTE-ERALDAKETA), haien kategoria gorabehera (grafikoa, marketina...)
- Alderdi grafikoa: arte-zuzendaritza, kartelen eta esku-orrien diseinua, standak...
- Identitatea: marken eraikuntza eta garapena.
- Argitalpena: katalogoen, inprimakien eta aldizkarien diseinua.
- Motion: markaren bideoak (after effects).
- Marketina: zuzeneko marketin "etikoko" ekintzak.
- Webgunea: webguneko alderdi grafikoaren arte-zuzendaritza eta garapena.

Berrikuntza zer den laburbiltzen badugu, ulertuko dugu aurretik dauden elementuak, ideiak edo protokoloak aldatzen dituen prozesu bat dela, zeinetan horiek hobetu edo berriak sortzen baitira, merkatuan eragin positiboa izan dezaten. Aipatutako berrikuntzaren alde lan egiten duten eragile eta agentziak bat datoz, zalantzarik gabe, laburpen horrekin.

Hasierako hausnarketa horretan oinarrituta, uste dut nire enpresa-proiektua oso berritzailea dela. Zergatik? Zalantzarik gabe, gure eguneroko bizitzan daukagu komunikazioa, gizakia gizaki denetik. Pixkanaka, gizarateak aurrera egin ahala, komunikazio-enpresak eta -agentziak sortu ziren, eta beren metodologia eta ikuspegia garatu zuten, lan egiten zuten merkatuaren eta sektorearen ohiturak aldatzearekin batera. Alabaina, ez dugu bilakaera bera ikusi jokabide etikoekin eta ekonomia sozialekoekin lerrokatzea bilatzeko orduan, enpreson helburu nagusia salmenta lortzea edo xede-merkatua konbentzitzea izan baita, haien bezzeroaren produktuaren edo zerbitzuaren mesedetan. Eta hortxe, hain justu, izan nahi dut balio bereizgarria nire bezero potentzialentzat eta, beraz, haiek posizionatu nahi duten xede-merkatuarentzat. Hala, balio-proposamen berritzailea aurkeztuko dut, zeina enpresek eta erakundeek gero eta gehiago

eskatuko baitute, ikusita beren ohiko komunikazio-agentziak ez direla gai osagai sozial eta etiko hori txertatzeko ematen dizkieten zerbitzuetan.

Ildo horretan, eta gure zerbitzu-eskaintzaren berrikuntzaren erakusgarri txiki gisa, **Inpaktu Hirukoitzean oinarritutako Kudeaketa-ereduaren** erabilera nabarmentzen dugu. Eredu horretan, negozioak egiteko moduak ekonomia, gizartea eta ingurumena hobetzen ditu. Filosofia horren oinarrian garapen jasangarria dago, eta hazkunde ekonomikoa, justizia soziala eta ingurumenaren babesa sustatzen ditu; horretarako, enpresek eta erakundeek ziurtatuko dute eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuak errentagarriak eta, gainera, sozialki eta ingurumenaren aldetik ardurazkoak direla. Hortaz, inpaktu hirukoitz horrekin, xedea da emaitza orekatuak lortzea ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloetan, ingurumena errespetatzen duten bitartekoen, laneko jardunbide bidezkoen eta erantzukizun sozial korporatiboaren bitartez. **Helburua da garapen jasangarria eta guztiontzako justua den ekonomia lortzea.**

11.- Eragina eta emaitzak (nola lagundu duen udalerria, eskualdea, eta abar garatzen):

Azken urteotan, KuartangoLab eskualdeko erreferente bihurtu da ekintzailtzari dagokionez, eta hurbileko eskualdeetako talentua ere erakarri du. Horri esker, interes handiko gunea lortu da eskualdeko sustapen ekonomikorako eta beren negozioa sustatu dutenen arteko sinergiak eta lankidetzak garatzeko.

Nolanahi ere, nahiz eta proiektu zeharo erakargarriak dauden, orain arte ezein profesionalak ez ditu bere jardueraren erdigunean jarri komunikazioko, arte-zuzendaritzako eta komunikazio grafikoko zerbitzuak; horregatik, Gasteizko eta Bilboko hirugarren enpresak kontratatu ohi dira, eta, batzuetan, baita online jarduten duten agentziak ere. Sarritan, egoera horren ondorioz, agentziok ez dute ondo ulertzen proiektuaren edo enpresaren funtsa, eta, beraz, nahiz eta zerbitzu-prestazioa eraginkorra izan, zalantzarik gabe hobe izango litzateke bezeroaren eta hornitzailearen arteko harremana estuagoa izango balitz.

- Horrekin guztiarekin, hona hemen eskualdeari egin nahi dizkiodan ekarpenak:
- Eskualdeko Landa Garapeneko Programarekin lerrokatutako enpresa-proiektuak abiaraztea.
- Emakumeek bultzatu eta abiarazitako enpresa-proiektuak abiaraztea.
- 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatutako enpresa-proiektuak garatzea.
- Eskualdeko enpresa-ehuna eta haren lehiakortasuna indartzen laguntzea.
- Gaur egungo enpresa-ehunerako balio erantsiko zerbitzuen eskaintza handitzea.
- Eskualdeko enpresa eta erakundeekiko lankidetzak sustatu eta sinergiak sortzea.
- Eskualdeko eta probintziako kohesio sozial eta ekonomikoa hobetzeko ekarpena egitea.
- Tokiko biztanleria mantentzea, kontuan hartuta nire enpresa-proiektua abian jartzeak aukera emango didala udalerrian bizitzen jarraitzeko.
- Bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko kontziliazioa hobetzea, nire lanpostua nire etxetik minutu gutxira egongo delako.